

SUTONDOAN MAITE OREGI HEZKUNTZAKO ZINEGOTZIA
KULTURA ABESBATZAREN DISKOA SALGAI IZANGO DA AZOKAN



piipilean

Soraluzeko Hamabostekaria 78. alea 2003ko azaroaren 7a

azoka 03





Tornileria-estanzak
eta
extruzioa hotzean

GOL

GOL industriak S.A.
Sagar Erreka, 19 45 PK
Telefona: 34 943 75 21 00
Faxa: 34 943 75 17 12
20590 SORALUZE


denda
berria

ayerbe

denda
berria

liburudenda

Zezenbide 9
Tel./Faxa: 943 20 22
20600 EIBAR
(Gipuzkoa)





Aitxa, ama, banoia!

NEREA UZIN

Orain dela urte batzuk etxetik irtetzeko era bakarra ezkontzea zen. Bizitzaren zikloaren parte bat gehiago bezala. Ezin zen ulertu gurasoen etxea uztea, ez bazen emazte edo senargaiarekin bizitzera joateko.

Orduango gazteak ez ziren etxetik irtetzen bakarrik bizitzeko. Senar edo andregairik topatzen ez zuena, etxean bizitzen geratzen zen "neska-zahar" edo "mutil-zahar" bezala (inor ofenditzeko asmorik gabe). Eta gutxiago oraindik lagun batekin (edo bakarrik, zergatik ez) bizitzera joateko. Bikote batekin ez bada, non egongo da ba etxean baino hobeto?, Esango luke orduango (eta ez dakit oraingoren batekin ere) guraso batekin baino gehiagok Orain ordea, gazteria inoiz baino lehenago emantzipatzen ari da. Bakoi-tzari propioa zaion espazioaren bila. Plaentxiako gazteria dugu horren irudi garbia. Azkenaldian jende asko ari da independentziaren gozo eta garrantzak probatzen. Eta nahiz eta askori arraroa edo ulergaitza iruditu, jende hau ez da bikotearekin bizitzera joan, lagunekin baizik. Denetik dago, bi edo hiru lagun elkartu eta pisu bat alokatu dutenak, pisu-kide bat behar eta ezagun soil batekin bizi dena, azkenean anai edo arrebarekin pisua konpartitzen bukatu

duena, eta baita oraindik ere pisu eta pisu-kide bila dabilena.

Hau esanda ezin dut aipatu gabe utzi gure herrian dagoen etxebizitza gabezia. Ez dago pisurik?, edo jendeak ez ditu saldu edo alokatu nahi? Zer gertatzen da utzik dauden etxe guzti horiekin? Honen inguruan badakit badagoe-la talde bat hausnarketetan dabilena eta nire iritiz txalotu beharrekoa da egiten ari diren lana.

Zeren bila doa gurasoen etxetik atera eta etxe propioa bilatzen duena? Norberaren espazioaren bila agian? Egia dena da, guztiok amesten dugula noizbait gure etxea edukitzearekin, gure erara antolatu eta disfrutatzearekin, inori konturik eman gabe bizitze horrekin. Ze azkenean, gurasoen hegalpetik ere noizbait irten beharko dugu. Beraiek puntu bateraino babestu, aholkatu, gidatu gaitzake, baina gu gara gure bizitzaren jabe, eta momentu bat heltzen da non norberak gain hartu behar dituen bere erabaki eta erantzukizunak.

Azkenaldian independizatu berri den jende ugari daukat inguruan eta beraien ahotan hitz positiboak besterik ez ditut entzun. Horietako batek esan berri didanez bertan antolatutako aforiak mundialak dira eta bertatik sortutako harremanak oso interesgarriak.

Telegrapak

Kaixo irakurle. Stop. ez da giro!. Stop. helikopteruak, paratxutistak... Stop. Elgeta konkistatu zebe lenagoko egun baten. Stop. eskoletako umieri gustatzen jakuez eta gaitzerdi. Stop. dana dala Trillok emon dittuan arrazoiak... Stop. umiak be ez dittue sinistu. Stop. eske... Stop. Jesus, jesus!. Stop. zer bialtzen doskuzu zerutik?. Stop. zapaturako eguraldi ona. Stop. horixe da bihar doguna. Stop. eh Babadator?. Stop. "prussst!". Stop. heldu da egun haundixa. Stop. zapatu iluntzian puxkar hotsa izango da nagusi herrixan. Stop. eh Babadator?. Stop. "praaazzzzt!". Stop. beti gaztaina erriak jaten... Stop. "prrrrisst" . Stop. uiuiui!. Stop. horrek zarata txarra etara jon/k eh!. Stop. domekan Behobiara zoiaztenok. Stop. badakizue!. Stop. turbo propulstio nuklearra bihar badozue... Stop. etorri babajenera!. Stopa. eta puxkar artetik. Stopa. zapatuan Pil-pileanen eskeintza aprobeztatzeke aholkua. Stop. laster bazkide izango zaitugulakuan....



Argitaratzailea:

Pil-pilean Kultura Elkartea
Frontoi kalea 5. behe, PK 27 - 20590 Soraluze.
Telefonia 943 75 13 04
comunidades.kzgunea.net/PilPileanKulturaElkartea/EU
pilpilean@euskalnet.net

Erredakzio burua: Egoitz Unamuno

Erredaktoreak: Eguzkiñe Aldazabal, Enara Agirre, Gurutze Ariznabarreta, Jon Basauri, Xuban Catalan, Ugaitz Catalan, Aitor Madrid, Eduardo Pombar, Eneko Beretxinaga, Gorka Salaberria, Egoitz Unamuno eta Arianne Unamuno.

Publizitatea: Ugaitz Catalan (943 75 13 04)

Logotioa: Jon Gabilondo
(943751304 tel.)

Banaketa: Pil-pilean **Ekoizpena:** 1.850 ale

Inprimategia: Gertu Koop.

Azala: Pablo Galarraga

Diseinua eta Maketazioa: Aitor Madrid

I.Z.K.-a: G20696563 **Lege-gordailua:** SS-537-2.000

Pil Pileanek ez du bere gain hartzen aldizkariko esanen eta iritzien erantzukizunik.

Aldizkari honek erakunde hauen dirulaguntza jasotzen du euskarra bultzatzeko.



SORALUZeko
UDALA



EUSKO
JAURLARITZA



GIPUZKOAKO FORU
ALDUNDIA



Erreportaia

Udazkenarekin batera, hego haizea zuhaitzetako orbekak lurreratzen ari zai-gula heldu da aurtengo Gaztañerre Azoka eguna. Berrikuntzaz betetako edizioa izango da aurtengoa; baserrien gidaliburuaren argitalpena, baba txapelketa, babajana, arratsaldeko erromeria...

Zorion agurrak



Nerea Martin
Azaroaren 9a
ZORIONAK!! ...
Zure egunian paga
bikoitza politori!
Etxekuen partetik.



Ane Moreno
Azaroaren 16a
3 urte
ZORIONAK!!
Muxu haundi
bat! Etxekuen
partetik.



Joseba Arrillaga
Azaroaren 13a
ZORIONAK!!
Ondo ondo pasatu
deizula zure egunian!
Etxekuen partez.



Jokin Arrillaga
Azaroaren 22a
ZORIONAK!!
Asko maite zaitu-
gu! segi holaxe!
Etxekuen partetik.



Marina Laskurain
Azaroaren ??a
ZORIONAK!!
Asko maite zaitu-
tugu prexioxa!
Etxekuen partetik.



Gorka Salaberria
"Txakarra"
Azaroaren 3a 25 urte
ZORIONAK
POTXOLO!
25 pasoko bidian
bromatan errege ta
fin lanian.Patx ibili!
Pil-pilean.

Ariane Rodriguez

Azaroaren 20an 27 urte
ZORIONAK

Orain arte bezain jator eta alai izaten
jaittu deizula! muxu asko!
Lagunen partetik.

Gutunak

Euskaldunak eta elebitasuna Pasa den urriak 25ean Euskal Herrian Euskaraz-ek nazio mailako Ezabaketa Eguna burutu zuen herriz-herri. Soraluzen ere makina bat erdal errotulo ezabatuak izan ziren modu batera edo bestera. Ekintza hauek hamaika esames zabaldu zituzten herritarren artean: denda eta zerbitzuetan (banku,sendagile...) elebitan dauden errotuloak zergaitik ezabatzen dira? Errotuloen elebitasunak ez al ditutu bat euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatzen? Zergaitik daude herritik zehar ofizialtasun errealaran aldeko eskakizunak? Euskara ofiziala den EAE hontan, ez da ofizialtasun horren zantzurik inondik ageri Eusko Jaurlaritzak kudeatzen dituen osasun-administrazioan, justizi-administrazioan, herrizaingoa... honegaitik eskatzen da ofizialtasun erreala. Benetan euskaldunon hizkuntza eskubideak bermatuko

dituen hizkuntza politika eraginkor bat alegia.

Kale mailan bai, zorionez bada Soraluze alde hontan paisaia elebiduna ikusteko parada, baina hortara mugatu behar al gara euskaldunak? Noiz arte jarraitu behar dugu euskaraz ez dakitenei euskaraz ikasteko behar errealik sortu gabe? Euskara menderatzen duenak biak dakizki eta aukera dago baina erdal elebakarrak bakarra daki, beraz, aukera bakarra; gaztelerez edo gaztelerez. Euskara ez omen da galduko daki-gunak hitz egiten badugu, baina Euskal Herri euskalduna helburu dugunontzat badago besteeginbehar ugari gure artean euskaraz hitz egiteaz gainera. Gaizki esanak barkatu eta ondo esanak gogoan hartu! Ondo pasa bai Gaztañerre ferixan, bai Gaztañerre egunean ere. Aupa zuek!!! **Soraluzeko EHE**

Ajenda

MUS, TUTE, TRUK ETA BRIXKA TXAPELKETA

Izena emateko epea zabalik dago.
Jokatzeo egutegia honakoa izango da:
Astelehena 10 TUTE
Asteartea 11 BRIXKA
Asteazkena 12 TRUK
Osteguna 13 MUS
Ostiralean sari banaketa.

**Itxaropena Jubilatuen Elkarte
SANTA ZEZILIA KALEJIRA
Azaroaren 21ean**

18:30etan Kalejira Santa Ana kaletik
irtenda herrian zehar.
19:30etan Plaza Barrixan emanaldi bate-
ratua eskeiniko dute (parte hartzen duten
ikasleendako ogitartekoak banatuko dira)

Soraluzeko Musika Eskola**GAP PROGRAMAN PARTE HARTZEKO TXARTELA**
(Debabarrenako etxeetarako)**INGURUMENA ZAINDUZ ETXEO
GASTUAK GUTXITU NAHI DITUZU?**

Bai, 4 GAP eskuliburuak, DOAN, jaso nahi ditut

Izena: _____ Abizenak: _____
Helbidea: _____ Zenbakia: _____ Atea/Solairua/Eskailera: _____
Posta-kodea: _____ Herria: _____ Telefonoa: _____ e-mail: _____

Txartel txartel hau, gutunazal batean sartu, zure janti, eta helbide honetara bidali:
GAP-EUSKADI. 3108 posta-kutxa. 48080 Bilbo
Norbitaren datuak isilikotako dira eta LORTAD legea betez erabiltzen dira

Pil-pilean Hamabostekariaren laguntzaz

Deba, Eibar, Elgoibar, Ermu, Mallabi, Mendaro, Mutriku eta Soraluze

Barra kargadore automatikoak
eta makina bereziak**ETXEHUN, S.A.L.**

Mendiola Industrialdea 14-5

Tfnoa 943 75 18 91

Faxa 943 75 24 58

E - maila: etxehun@teletel.esetxehun@euskaltel.net

20590 SORALUZE

Gipuzkoa



Industrialdea, z/g

138 Postakutxa

tf: 943752150

Faxa: 943752118

SORALUZE

Zer irizten dotsazu?

Urriaren 26an aurkeztu zuen Ibarretxe Lehendakariak Euskadiko Erkidegoaren Estatutu Politikoaren proposamena. Proposamenak era guztietako eritziak sorrarazi ditu Eusakal Herrian. Alderdi batzuk begi onez ikusi dute, beste batzuk ados egon ez arren eztabaidatzeko prest daudela adierazi dute eta ezezko borobila eman dionik ere bada. Eta gizarteak zer dio?

Zer erizten dotsazu Ibarretxe Planaren inguruan sortu dan zalapartari?



Martina Martin
70 urte
Jubilatua
Politikuak hartutako jarre-
rak, zatarrak eta okerrak
izan dira. Nik uste dot,
horrek gehixen erabiltzen
dabena gizurra dala, eta egi-
rik ez dogula jakitzen.



Andoni Urizar
21 urte
Ikaslea.
Txarto iruditzen jata politi-
ko askok hartu daberen jarre-
ria. Plan hau alternatiba bat
da eta jentia elkarrizketara-
ko eta eztabaidatzeko
behintzat prest egon bihar
litzake, nahiz eta agian alda-
keta batzuk jasan biharko
littuzken arazuari konponbi-
dia emoteko.



Egutimio Furgencio
65 urte
Jubilatua
Etxata iruditzen normala
horrenbeste hauts harrotu
izana. Berba gehixao egin
biharko leukie eta zoeze
aldatu bihar balitz aldatu.



Mari Glori Gomez
35 urte
Etxekoandrea
Beren artian berbarik ez
egittia ez jata ondo pentsa-
tzen. Gauzak konpontzia
nahi baldin badogu elkarriz-
ketarako prest egon biharra
daukagu nahiz eta guztiz
ados ez egon planakin.



Ma Jose Miranda
28 urte
Ume zaintzailia
Nere ustetan politikuak lar-
txo exageratu dabe. Nik uste
dot elkarren artian eztabai-
datzeko aproposa izan lei-
kiala nahiz eta aldaketa ba-
tzuk jasan bihar izan gero.
Beste proposamen desber-
din bat aurkeztuko neuke.



Jesus Unamuno
62 urte
Bihargina
Nik uste dot, konponbidia
topatzia nahi daberenari egite-
en laga bihar jakola trabarik
ipini barik. Bestiak ez badabe
nahi lanik egiteerik, gitxienez
bestieri laga deixela egitten.

GILA TABERNA
Goizeko 6:30-etatik aurrera zabalik
**Gosarixak eta
pintxo
goxo goxuak !!**



Errabal kalea 15, Tfnoa 943 75 18 34

**Kontulan
Aholkularitza S.L.**
Enpresa aholkularitza
Jabe Elkarteak
Aseguruak

Santa Ana, 13 - 1 ezk. 20590 Soraluze
Tlfonoa: 943 75 17 82 GIPUZKOA

Sahiesbideko obrak aurrera doaz



Olako zubitik Ezosi bidera arteko sahiesbideko lanak bete betean dira dagoeneko. Olako auzotik trenbidera egin beharreko bidea egiteko zulaketa lanak hasita daude. Bestalde Zeletako zubia bota aurretik (gero autoak nondik igaro



izan dezaten) hilerriaren aurretik egingo den bidearen eraikuntza ere aurrera doa. Bi lanok eragin duten ikusmina ez da harritzekoa, lanen ikusgarritasuna eta inguruko bizilagunendako ekarriko duen aldaketa kontuan hartuta.

Baserritarren eskaerak Udalari

Joan zen asteartean, azaroaren 28an bildu zen Udala baserritarrekin, "dituzten beharrak jakin eta datorren urteetan egin beharrekoa" zehazteko helburuarekin. Auzo guztietako 25enbat baserritarrek parte hartu zuten bilera eta hainbat eskakizun egin zituzten Iker Aldazabal Nekazaritza batzordearen ardura duen zinegotziari. Hona-koak izan ziren besteak beste baserritarrekin aurkeztu zituzten arazoak; errepideen konponketa (Untzeta, Sagar Erreka, Ezosi...), baserrietako postontzien

egoera kaxkarra, baserrien seinalazioa (batez ere anbulantziendako), Irure auzoko ermitaren egoera... Nekazaritza zinegotziak, eskariak ontzat hartzen dituela eta datorren legealdirako lehentasuneko arazoei irtenbidea ematen saiatuko dela adierazi zien, errepideen konponketa esaterako. Egingo diren lanek jarraipen bat egiteko, AHko zinegotziak egindako proposamena onartu zuen eta 6 hilabetera balorazioa egiteko beste bilera bat egiteko konpromisua hartu zuen.

Ingurumenari buruzko hitzaldia 13an HHIko egoitzan

Azaroaren 13an arratsaldeko hiru t'erdietan, ingurumenaren zainketa eta etxeko gastuen murrizketari buruzko hitzaldia izango da HHIko Baltegieta-ko egoitzan. Hitzaldian Eusko Jaurlaritzaren GAP programaren inguruko informazioa zabalduko da. HHIko ikasleez gain, interesa duen edonork izango du hitzaldia entzuteko aukera.

KZ Gunea astean bi egunetan zabalik baina ikastaro berriak

KZ Guneako arduradun den Aitor Madridek jakinarazi digunez, datorren astetik aurrera astearte eta ostegun arratsaldetan bakarrik izango da zabalik KZ Gunea. Ordutegi murrizketa hori, KZ Gunea herrian zabaldu zene- tik, hasiera hartan zehaztutako helburuak bete izana eta azken hilabeteetan ikastaroetan izena eman duen jendearen gutxitzea izan dira. Dena dela, ikastaroen eskeintza berri bat dago administrazio alorreko ezagutzak sakondu nahi dituztenendako prestatua. Hamabost ikastaro baino gehiagoko aukera zabala eskeintzen duena, asteko ordu ezberdinetan arratsalde. Bi orduko ikastaro hauetan, internet bidezko bankuarekiko harremanak, administrazioarekiko on-line tramiteak, ordenagailua fax moduan erabiltzen eta beste hainbat gai landuko dira. Informazio gehiago Udalean 943753043.

JAVIER ALONSO ZELAIETA
434 ZENB.KOL

**HORTZ
KLINIKA**
MEDIKU ESTOMATOLOGGA



ATXURI 1-1. ESK TELF. 943 751613

**TXOKO
KAFETEGIA**



Kafe ederra hartzeko txokorik onena!
Kalebarreri 22. beheko. telf: 943751789

 **PASCUAL CHURRUGA, S.A.**

Hotzian eta beruan
jotako tornilluak

Telef. 943750006 eta 943751600 Faxa 943752461
E-mail: general@pascualchurruga.com
Errekalde 21 20590 SORALUZE

EROSLE

Kontsumo kooperatiba



Tel.: 943 75 13 45

Ahozko hondarea jasotzeko hitzarmena sinatu du Udalak

Asteartean, herriko ahozko ondarea jasotzeko hitzarmena sinatu zuen Udaleko Kultura zinegotziak eta Deba Ibarreko Badihardugu euskara elkarteko ordezkariak.

Udalak, Badihardugu elkarteak herriko ahozko ondarea jaso eta digitalizatzeko aurkeztutako proiektua onartu du eta 4.890 euro ordainduko dizkio Badihaduguri, guztira bi urteko iraupena izango duen proiektuaren lehen atala betetzeko. Proiektu honekin, bestalde, orain bi urte osatu gabe gelditu zen Sorraluzeko Euskara Batzeko bekari jarraipena emango zaio.

Proiektuaren helburua dagoeneko herrian eginda dauden grabaketak jaso, berriak egin, zerrendatu, digitalizatu eta ahozko ondarea herritar guztiendako eskuragarri jartzea izango da.

Badiharduguk Deba Ibarreko hainbat herritan aurkeztu du proiektua bai-larako Ahozkotasanaren Bilduma osatzeko asmoarekin.



Nerea Perez (Udaleko Euskara eta Kultura zinegotzia) eta Asier Sarasua (Badihardugu Euskara Elkarteko idazkaria).

Kalteordainik ez Sorraluzeko EAJri

Espainiako Epaitegi Nagusiak atzera bota du Sorraluzeko Batzokia Frankoren diktaduraren garaian egotzia izateagatik egindako kalte ordain eskaera. epaitegi Nagusiaren esanetan, Sorraluzeko Batzokiaren kasuan, Batzokia hasieran zegoen jabeen eskuetara itzuli zen berriz eta beraz, estatu-ko administrazioak ez omen du kalteordainik ordaintzeko obligaziorik. Sorraluzeko EAJK, jabetza itzuli zela onartu arren, "erabili ezinda izandako urteen bali" ez dela kontuan hartzen adierazi digu. Espainiako Gobernuak 9 milioi euro ordaindu beharko dizkio EAJri, Frankoren diktadurapean, Eibar, Zeanuri, Lekeitio, Durango, Zorroza eta Sondikako egoitzen jabetza egotzi izanagatik.



Polikiroldegia eskuz aldatzeko deialdia egingo du Udalak

Ostegunean egin zen Udal Batzarrean onartu zuen Udalak, Kiroldegia eskuz aldatzeko deialdia egitea. Deialdi honek 2004 ko urtarriletik 2005eko abendura bitartean, Kiroldegiko ardura izango duten ardura-dun berriak aurkitzea du helburu. Lehiaketara aurkezteko derrigorrezkoa izango da aurkezten denak enpresa edo izaera juridikoa izatea. Enpresa horrek Kiroldegiko frontoi, gimnasio, igerileku eta barra kudeatzearen ardura izango du.

ARRANO
tabernia

“Giro euskalduna eta sanua”

ETORRI ETA GOZATU

ETXERA

Telefonia 75 24 09

ESKAL PRESO, DEPORTATU ETA EXILIATUAK

FER. S.A.

Industriak

Eskulanetarako tresnak

Industrialadea, 17 - 20590 Sorluze

Tlfonoa: 943 75 20 00 Faxa: 943 75 19 80 E-maila: fer@nexo.es



Inoiz baino beteago heldu da Gaztañerre!



Udazkenarekin batera, hego haizea zuhaitzetako orbelak lurreratzen ari zaigula heldu da aurtengo Gaztañerre Azoka eguna. Berrikuntzaz betetako edizioa izango da aurtengoa; baserrien gidaliburuaren argitalpena, baba txapelketa, babajana, arratsaldeko erromeria... Eguneko protagonista nagusiak baserritarrak izango diren arren, aurtengoa ere egun osoko jaia bihurtuko da. Aurrikuspenen arabera, gaztaina erre usaia bezala, eguraldi ona ere lagun izango dugu.

Urtero moduan, goizeko bederatzietan emango zaio hasiera aurtien VIII. aldiz egingo den Gaztañerre Azokari. Aurtengoan, herriko 9 baserritako barazkiak eta 8 baserritako animaliak izango dira ikusgai. Baserritarren produktuekin batera, herriko 6 artisaren lanak ikusteko aukera ere izango da; makilagintza, saskigintza, egur tailaketa eta abar. Azpimarratzekoa da, urtetik urtera azokan gero eta indar handiagoa hartzen diharduen arloa dela artisautzarena. Bestalde, herriko talde eta elkarteek ere bere lekua izango dute azokan; AEK, misioetako batzordea, Istitutuko ikasleak, EHE (gaztai pixaketa), abesbatza (diskoa) eta Pil-pileanen (baserrien liburua).

Azoka gunea girozte aldera, goiz goizetik Larreategi trikitilari taldea ibiliko da kalez kale eta Agirre eta Lizasoren bertso saioa ere izango da entzungai eguerdiko hamabietan. Abesbatzak bere aldetik, kontzertu ibiltaria eskeiniko du, han eta hemen kantu saioak eginez eta hamabi t'erdietan erregetxean emanaldi bat eskeiniz.

Josefa eta Sebastian omenduak Aurreko urteetan egin den moduan, aurtien ere herriko bi baserritar nagusien omenaldia egingo die Udalak. Base-

*Baserrien Gialiburua
“San Andres auzoa da baserri eta bizilagunik gehien duen auzoa (72), baserrietako adinaren batazbestekoa (47) urtekoa da eta 37 baserri daude hutsik”*



Babadator... Pil-pilean elkarteak Baba Txapelketa, herri babajana eta jai giroa sustatzeko erabili duen pertsonaia da.

erritarrek eta Udalak hala erabakita, Uzkate baserriko Josefa Larrañaga eta San Martzialgo Sebastian Aldazabali egingo zaie aurtengo omenaldia. Biak ere 1914. urtean jaiotakoak dira eta bizitza osoa baserrian eman dute, gaur egun Eibarren eta Donostian bizi badira ere hurrenez hurren.

Baserrien Gidaliburua salgai Aurtengo azokako berezitasun nagusietako bat, joan zen asteartean aurkeztu zen Soraluzeko Baserrien Gidaliburua izango da. Bi urteko lanaren ostean, Pil-Pilean eta Kontrargik Udalaren eta Debemenen babesean egindako lana kaleratu da. Egileek aurkezpenean azaldu zuten, “liburuak 128 orrialdetan zehar Soraluzeko 88 baserrien egoeraren berri ematen du, baserri bakoitzeko bizilagun kopurua, produktzioa, historia”... agertuz. Baserrien “fitxak” auzoka antolatuta daude eta auzo bakoitzak bere historia- ren eta izaeraren berri ematen duen bi orrialdeko sarrera bat du. Liburuak jaso dituen datuen arabera, “San Andres auzoa da baserri eta bizilagunik gehien duen auzoa, baserrietako adinaren batazbestekoa urtekoa da eta 30 baserri baino gehiago daude hutsik herrian”. Guztira 800 ale argitaratu dira eta azoka

Agurtzane Etxaniz: "zor handia dugu baserriarekin"



Debemen elkarte 1991. urtean sortu zen. Orduetik hona eta orain bi urterarte Debabarreneko Mendi Nekazaritzako Elkarte izan da. Orain, bailarako ezaugarriak nekazaritzarako baino abeltzantzarako egokiagoak direla ohartuta, Landa Garapenerako Elkarte izendapena jaso du. Debabarreneko 6 Udaletako eta udalerririk horietako baserriarren ordezkariak hartzen dute parte elkartearen. 270.000 Euro inguruko aurrekontua du Debemenek eta baserri munduaren garapenerako lagungarri diren proiektuak prestatu eta laguntzen lan egiten dute urte guztian zehar. Soraluzen esaterako, besteak beste, Gaztañerre azokaren antolakuntzarako azpiegituz, baserri bideen garbiketaz eta baserrien gidaliburuaren finantziazioaz arduratu dira aurten. Debemeneko zuzendaria den Agurtzane hitz egin dugu Debabarreneko eta Soraluzeko baserri munduaren egoeraz.

Baserriak ze ekarpen egiten dotsa gaurko gizartiari? Nik uste azken urtetan ari garela konturatzen baserriak zer ematen dion gure gizarteari. Baserriak gure kultura eta hizkuntza gorde ditu eta gure ingurua eta natura zaindu. Gaur egun, inguru naturalaren %80a baserriarrek zaintzen dabe. Baserriarrek desagertzen badira zeinek egingo dau lan hori? Mendiak garbi eta osasuntsu nahi baditugu baserria mantendu behar da. Horretan zor handia dugu baserriarrek.

Zela dago baserria Soraluzen?

Debabarrenean ezberdintasun handia dago kostaldetik barnekaldera. Kostaldean, Deban eta Mutrikun, mantentzen da nekazaritza, Elgoibarren zerbait baina Soraluzen eta Eibarren erabat galduta dago, inor ez da baserri bizi. Hala eta guztiz be biztanlegua mantendu da, nahiz eta beheranzko joera izan.

Ze arrazoi egon da barnekaldean nekazaritzako produkziñua galtzeko? Batetik, industria asko dargalako eta jentia lantegietara jeitsi dailako, baina horri esker baita, kalean lan egin arren baserri askotan bizi da jendea. Eta beste arrazoi nagusia hemengo orografia izan da. Hemengo maldetan baserri bizi izatia oso zaila da. Abeltzaintza da aukera bakarra eta hala ere mugatua larre txikiak eta lur aldapsuak daudelako. Soraluzen aire libreko

txarrien hazkuntza "Basatxerri", "Lumagorri" oilaskoak... lirateke aukera batzuk.

Datozen urtietarako ze asmo ditzuzue? 1998. Urtian Landa Garapenerako Legea onartu zeban Jaurlaritzak, eta lege horrek bailara guztiak Landa Garapenerako Programak izatera behartzen ditu. Debabarreneko programa otsailean onartu zan. Programa hori, datozen bost urtetarako plan estrategikoa izango da. Osasuna, gizarte zerbitzuak, garraio zerbitzuak, eskola zerbitzuak... orokorrean zerbitzuak landa eremura eraman eta bertako populazioa mantendu edo handitzeko bitartekoak jartzea da helbura.

Zein da etorkizunerako bidia?

Belaunaldi aldaketa ematea da lortu bihar dana, gaztiak baserria erakartzea, baina hori oso konplikatu da. Azken urtietan lan asko egin da Soraluzen. San Andres auzokoekin esaterako lan handia egin dugu, baserriarrek elkartu eta dinamika bat sortu dabe eta hori da aurrera egiteko bidia. Gai nontzian kalitatezko produkziñua eta merkaturatzeko sistema propioak eratzeta da merkatuan lehiatzeko aukera bakarra, baserriarren arteko elkarteak, labela, nekazaritza ekologikoa, jatorrizko izendapenak... antolatzea da atorkizunerako bidea.

egunean jarriko den postu berezi batean izango dira salgai 15 euroko prezioan (10 euro Pila-pileanen bazkideendako). Udalak adierazi duenez, eskerron modura, baserri bakoitzak liburuaren ale bana jasoko du dohain. Ondorengo hilabeteetan liburuak Udaletzeko bulegoetan erosi ahal izango dira prezio berean.

10 Bikote Baba Txapelketan

Aurten, lehen aldiz, Pila-pileanek antolatuta eta Udalaren laguntzaz, Soraluzeko Iengo Baba Prestaketa Txapelketa egingo da Gaztañerre Azoka egunean. Txapelketan, kuadriletako ordezkari moduan izena eman duten hamar bikoteetako bakoitzak lau kilo babagorri prestatuko beharko ditu. Baba prestaketa Plaza Zaharreen jarriko den estalpean egingo da eta ordubi t'erdietan herriko lau sukaldarik epaituko dituzte babak. Sari banaketa berriz kiroldegian egingo da, hiruretan hasiko den babajan erraldoiaren ostean. Babajanerako ere, dagoeneko 120 lagun baino gehiagok eman dute izena. Arratsalderako, jai giroari jarraipena emateko, Tximeleta taldeak alaitutako erromeria izango da Ikastola-

ko frontoian, txosna eta guzti. Ekitaldi hauek antolatzeaz gain, Pila-pileanek egunean zehar tabernetan euskal musika jar dezaten eskatuko die he-

rriko tabernari guztiei eta dei berezia egiten die soraluzetar guztiei larunbatean baserriarrez jantzita atera daitezen.



Baserrien gidaliburuaren egile eta babesleak Udaletxean egin zen aurkezpenean.



Ezoziko Ama Abesbatzaren diskoa salgai

Abesbatzakoak diru batzen ari dira urtarrilean Parisera egingo duten bidaiak ordaindu ahal izateko.

Ezoziko Ama Abesbatzak bere X. urteurrena ospatzeko Plaza Zaharrean eskeini zuen kontzertoa berriz entzuteko aukera izango dute herriko musikazaleek. Ekainaren 21ean egin zen kontzertoa jendetsu eta arrakastatsu hura Peñalba eta Labaien soinu teknikariek grabatu zuten, eta abesbatzakoek pentsatu zuten egokia izango zela grabazioaren kopiak egin eta jarraitzaileen artean banatzea. Abesti guztien artean 11 onentsuenak aukeratu eta disko

polita borobildu dute. 250 kopia egin dituzte danera, eta 6 eurotan salduko dute bakoitza feria egunean bertan, herrian ohiko kantaldi-kalejira egiten duten bitartean.

Urtarrilean Parisera

Ezoziko Amak Parisko X. Abesbatza Arteko Jaialdi Internazionalan hartuko du parte urtarrilean. Jaialdi hau UNESCO k (Nazio Batuen Hezkuntza, Zientzia eta Kultura Erakundeak) antolatzen du urtero eta bertan mundu oso-

ko abesbatzek hartzen dute parte. Abesbatzakoek programa aurreratu digute: urtarrilak 23an, ostiralean, lagunarteko kontzertoa bat eskeiniko dute nazioarteko beste koru batekin, eta larunbatean UNESCO-ren egoitzan abesbatza guztiek kantu bana abestuko dute eta ondoren denen artean antolakuntzak aukeratutako kantu bat interpretatuko dute. Kantu hau Kumbaya izango da eta abesbatzak aukeratutakoa, berriz, Gaur Akelarre Gorbeian.

RK Zuloko afaria

Joe...a zer nolako giro sortzailea eta alai! ze harro nagoen jaialdi honetan parte hartzeaz! zotz! Herriko musikari, olerkari eta artista guztiak bat eginda! zoragarria da! zirraragarria!
Ze krixto! Azaroaren 14an afarixa!
Animau hakitx!

Datorren azaroaren 14an, RKZulo afaria izango da Arranoan, gaueko 21:30etan. Bertan ihazko jaialdiko bideo grabazioa ikusteaz gain, hurrengo urtera begira, dauden ideia eta eritziak jasoko dira.



Maite Oregi

Maite Oregi Hezkuntza Zinegotzia

“Hirigintza, kultura eta hezkuntzako zinegotzixok Ikastola zaharrian Kultur Etxe bat egiteko aukera aztertzen dihardugu”

Zela doiaz ikastetxeko lanak?

Ondo doiaz. Lanen arduradunak diñue otsailerako amaituta egongo dala baina ez da seguru seguru. Dana dala datorren urteko lehenengo hilebetietan amaitzia aurrikusten da. Oso polita geldittuko da. Leiho, komun gela... dana izango da barrixa eta espaziu hobeto aprobetxatuta geldittuko da.

Hasierako aurrekontuan jarritakua baino 50 miloi gehixao gastauko dira eta danera 239 miloiko kostua izango dala aurrikusten da. Diru gehigarri hori Jaurlaritzako Hezkuntzako Ordezkaritzak emon dau eta lanak bihar dan moduan amaitu ahal izango dira horri eskerrak. Ikastetxe atzeko jolastokixan konponketia gerorako geldittuko da.

Jolastokiaren konpontzeko ez da iristen?

Fase honetakuarekin ez. Udalak Ikerlur etxiari eskatu zotsan azterketa bat egiteko eta azterketa horrek diñuanez, 14 miloi pezeta bihar dira konpontzeko. Guk ahalegin danak egingo ditugu diru hori topatzeko baina ez da erreza izango. Dana dala, konponketa horrek egin eta jolastokixa estaltzia da Udalaren asmua.

0-3 Urte bitarteko zentruaren inguruan erabakirik badago?

Aurreko legealdixan egin zan eskaria Eusko Jaurlaritzara. Udalak zentru hori jartziaren alde lan egiteko asmua dauka baina aurretik leku egoki bat eta bideragarritasun azterketa bat egin biharko dogu, zenbat umerendako egin biharko litzaken eta abar. Ikastola zahararren azpiko solairuan (aldagelak daren tokixan) jartzeko aukera aztertzen

dihardugu baina oindio ez dago ezer zehaztuta.

Musika Eskolari egoitza berri bat emoteko be ikastola zaharren aukera aztertzen diharduzue ezta?

Bai. Hirigintzako zinegotzixa, Kulturakua eta Hezkuntzakua (ni neu), bilera egiten hasi gara, planoak begiratzen eta abar, hezkuntza, kultura eta euskara alorretan lan egiten daben talderi irtenbide orokor bat emoteko. Kultur Etxe bat egitia oso komenigarrixa litzake. Datorren urtean hustuko da eraikina eta gero dirua lortu beharko da zerbait egiten hasteko.

Istitutuak be egin zeban 8 gela berri egiteko eskarixa baina azkenian gela berri horrek goiko frontoian egingo dira eta ez Ikastola zaharreko eraikinian.

ITUR iturgintza

Iturgintza, Gasa
Berogailuak
Sukaldeak eta Bañuak



Santa Ana, 20 Behea
Tfona: 943 75 12 41
Sakeleko tfona: 639 17 96 96

Instalazioak
Berrikuntzak



Kiru Muntaiak S.L.

Blas Elizburu Kortabarria

Sukalde, enpotratu
eta tarima flotanteen instalazioa eta salmenta.

Amillaga, 5 20750 Bergara
Tfnoa 943 75 13 12
Eskuko tfnoa 615 70 27 65

Mendizaletasuna

Karakatera igoera 16an

Urtero moduan, Elgoibarko Urgazi Triathloi Taldeak eta Morkaiko Mendi Taldeak antolatuta, azaroko hirugarren domekan, 16an, egingo da Karakatera igoera. Izena emateko Morkaiko elkartera deitu behar da, 943740297 zenbakira. Lasterketa Elgoibarko Plaza Handitik aterako da 10:00etan eta ordu erdi pasatxoko bidea izango dute Karakateraino. Azken urteetan, igoera amaiera oso lehiakorrak ikusi dira (irudian, orain bi urte azken metroetan izandako despiste bategatik bigarren gelditu zen korrikalaria).



Udala

Entrenatzaile beharra

Aurtengo urtean ere laster da ikastolako umeez irrikitan espero duten kirol denboraldia. Denboraldi hontan entrenatzaile postuan aurpegi berriak izango dira eta hontarako Udaletxeak deialdi bat egin du. Izen ematea 943 753043 telefonora deituta egin behar da.

Atletismoa

Donostia-Behobia

Datorren domekan Behobia – Donostia laisterketa egingo da eta urtero moduan soraluzetar askok parte hartuko dute. Aurten entrenatzeko lekuz aldatu behar izan dute eta gehienak poligonoan aritu dira bueltaka nahiz eta izan den, trenbideko obren artetik ibili de pistaturen bat edo beste.

Pelota

Ostiral honetan Azpeitiko kontrako partidua Soraluzen

Soraluzeko kluba osatzen duen kadete mailako taldeak, Azpeitiko Illunpe taldearen aurkako partidua jokatu du ostiralean Kiroldegiko frontoian. Joan zen asteburuan Añorgaren aurkako partidua 22-21 galdu ostean, partidua irabazteko gozoz aterako dira.

Futbola

Bururik altxa ezinda

Aurtengo denboraldi hasera ez da bat ere gozoa herriko talde nagusiarrentzat. Denboraldia aurrera doa eta oraindik ez dute garaipen bat ere lortu eta egoera ez da bat ere lasaigarria. Azken partidua Tolosan jokatu zuten Tolosaldearen aurka eta emaitza ez zen bat ere ona izan hiru eta huts galdu bait zuten.

Jubenilek ale hontako berri pozgarria ekarri digute larunbatean Ezozin Aretxabaletaren aurka 4 eta 0 irabazi bait zuten. Talde hontan azken astean aldaketak egon dira eta orain Asier entrenatzailearen laguntzaile Egoitz Portu jarri da Jose Vicentek lan arazoegatik entrenatzeari utzi egin behar izan bait dio.

Kadeteek oraingoan ezin izan dute garaipena lortu eta 6 eta 0 galdu zuten Amaikak Bat talde debatarren aurka Ezozin.

Argitalpen honen laguntzaile



kutxa
zuri esker

Etxabe Harategia



Euskal
txahalkia
Bildotsa

Merkatu Plaza 6-7 Postuak Telef. 943752375

EDURTZA kafetegia

Taberna eta jatetxe zerbitzua



Eguneroko
menua eta
pintxoak

Telf. 943 75 13 83 Santa Ana Soraluze



ARRATE IRRATIA

asteartero
12:40an

Soraluzeko berriak
zure etxean.

Pil-pileanen eskutik.

Maria Galarraga “Maritxu”

“Nik herrixa konpleto ikusten dot”

Domeka arratsaldian urten dogu kalera eta Maria Galarraga harrapatu dogu Batzokira bidian zoiala. Karta jokuan egiteko geldituta zeguan lagunekin baina atsegin haundiz hartu dau gure elkarrizketa egiteko proposamena. Galdera arraro xamarak iruditu zaizkio, jarri dizkigun arpegiengatik dakigu hori. Dan dana ez dosku kontaktu baina...

Izen abizenak, edadia eta lanbidia.

Maria Galarraga Ondarra baina Maritxu esaten doste eta etxeoandria naiz.

Zelakua da Maritxu?

Alegria naiz.

Ze gustatzen jatzu egittia zure denbora librian?

Ba pasiatzia, erosketa batzuk egittia, ez dot ezer espezialik egitten.

Gustoko menua?

Ba ez dakat ezer berezirikan, dana gustatzen jata.

Zenbakixa, koloria, animalixa eta abestixa.

Animalixa txakurra, zenbakixa edozein, koloria berdía eta abesti asko gustatzen jata.

Zein da zuretzako egun baterako planik onena?

Ba zapatu edo domeka baten egitten dotena, kalera urten lagunekin jokuan egin, ointxe noia Batzokira hori egittera.

Txikitako oroitzapen bat?

Momentuan ez dot gogoratzen. Ez dakit.

Hiru desio.

Desio bakarra : Osasuna. Horrekin nahikua.

Soraluzek daukan gauzarik onena.

Herrixa eta jentia.

Telebistako saio bat.

Ba ez dot asko ikusten telebisiñua, ez dakat bat espezialik, ez dakit.

Zerk emoten dotsu inbixia?

Ezebez.

Eguneko momenturik onena?

Bazkal ostian, siestia, hori da momen-



Maria Galarraga

turik onena. Egunero egitten dot.

Beti gogoratuko dozun eguna?

Nere semia jaió zan eguna.

Ezin dozu jasan.

Gauza asko ezin ditut jasan.

Zeri dotsazu beldurra?

Gabari. Bai gabari!

Zeri ez zontsake ezetzik esango?

Ba ointxe gabonak datoz eta loterixiari.

Bertso Begiz

*Batzokira bidian doiala
harrapau dogu Maritxu
somatuko dogu joko gosiak
alegre ta osasuntsu
Herrixa ondo dago
ostantzian akabo
Ta loterixari musu
suerte ona badozu laister
aberastu bihar dozu*

Eneko Beretxinaga

(Doinua: Iparragirre abila dela)

Urtian zihar ez dot jolasten baina gabonetan oso zaila da tentaldixari eustia eta beti jokatzan dot.

Aholkurik onena.

Laguntasuna.

Zer gehituko zontsake Soraluzeri?

Neretzat ezebez, konpleto ikusten dot, igual gaziak esango leukie zeozer baina nik nere herria konpleto ikusten dot.


Belarrak

Loradenda
eta belardenda

*Erosketak etxera
eramango dizkizugu*

Telf. 943 75 30 11

ELIZpE



h o r t z k l i n i k a

Elizburu, 3 behea

9 4 3 7 5 2 5 6 7

20590 Soraluze

Argazki zaharra



1951. urteko Soraluzeko Racing Club

Argazkian 1951. urteko futbol taldea ageri da. Goian; Timoteo Urizar (+) (entrenatzailea), Sabino Saiz, Juan Mari Altuna (atezainak), Jabier Igarza, Jon Inarra (prestataile fisikoa). Behean; Luis Jabier Oregi (ordezko atezaina), Luis Arrillaga, Santos Larrañaga (+), Pedro Osa eta Jabier Agirre.

Emilitak lagatako argazkia

Lehiaketa

Zein da argazkixan agertzen dan basarrixa?



Bi lagunendako afari mundial bat irabazi zeinke!!

DEITTU
943 75 13 04 ra

Aurreko irabazlea: Nerea Uzin
Erantzuna: Edurdungo

تذکت چتچ تکت جتتچ جتچ

GAZTELUPE
taberna

tel: 943 75 20 81

تذکت چتچ تکت جتتچ جتچ

Instalaciones Kalebarren S.L.

GAS INSTALAKUNTZAK
ETA PROIEKTUAK
KALEFAKZIOA ETA AIRE EGOKITUA
ITURGINTZA OROKORREAN

20590 SORALUZE TEL. / FAXA: 943 75 23 07 ESKUKO TEL.: 608 67 40 70 / 607 40 37 92
48017 DEUSTU TEL.: 944 75 99 60 POSTA ELEKTRONIKOA: KALEBARREN@INICIA.ES

HNOS. BENITO ANAIAK

ETXEKO ETA SUKALDEKO ALTZARIAK
Eskatu presupuestoa konpromisorik gabe

Santa Ana, 26 • Tel. y Fax (943) 75 20 47 • 20590 SORALUZE-PLACENCIA (Gipuzkoa)

MENDIZABAL

OKINDEGIA

Kalebarren,10
Telefonoa 943 75 20 91
Baltegieta, 6
Telefonoa 943 75 13 99
SORALUZE



ingurumena
Zure esku dago

**Aurkezteko azken eguna
azaroaren 20an**

**INGURUMENA ZAINDUZ ETXEKO GASTUAK
GUTXITU NAHI DITUZU?**

Eman
ezazu izena,
DOAN,
GAP Programan



GAP (Ekintza Plan Globala) programan parte hartzen duten etxeek %20 aurreztu dezakete urteko gastuetan eta eskuratu ahal dute etxea ekologikoa dela agiazatzen duen Nazio Batuen ziurtagiria



(Debabarrenako etxeetarako)
Ondorengo datuak gutunazal bidez sartu, zailia jartzen bada, zure helbidea honetara bidali:
CAPTUSKADI, 3108 **posta-kutxa**, **48060 Bilbo**
Izema - abizenak:.....
Helbidea:.....
posta-kodea:.....
Herria:.....
Tfn:.....



www.ingurumena.net/gap



"Gazte Txartela Euskadiko Kutxan Bakarrik"



Eska ezazu zure Gazte-txartela eta %50raino deskontuak izango dituzu Autonomia Elkarte guztietan eta Europako gainerako herrialdeetan.


Santa Ana, 18
Telefona: 943 751 238
Faxa: 943 753 103
20590 Sorluze/ Gipuzkoa

Zurekin elkarlanean





Fresaketa teknologia



SORALUCE S.Coop. • Osintxu auzoa • P.O.Box. 90 • E-20570 BERGARA (Gipuzkoa)
Tel. +34 943 769076 • Fax: +34 943 765128 • Web: www.soraluce.com

ESKEINTZA BEREZIA

Bazkide egiten bazara,

Soraluzeko Baserrien

GIDALIBURUA

debalde !!

